

# Noaia!!



“Hitza Hitz” ekitaldira  
joateko autobusa antolatu da



Jendetza bildu zen atez ateko sistemaren aurkezpen ekitaldian

## Parte hartzeko gogoz



# Santu Guztien Egunean

Erramuak,  
zentruak, koroak eta  
landaretan aukera  
zabala hemen  
aurkituko duzu.



Egun osan zehar zabalik!

## Urtinea Lorategia

San Esteban auzoa  
☎ 943 362 255 Fax: 943 366 054  
E-mail: [urtinea@euskadi.net](mailto:urtinea@euskadi.net)



ERRAUSKETARIK EZ  
LURRA BASERRIA HERRIA  
BIZIRIK

Denboraldi bakoitzeko...  
behar duzun guztia!



## Albisteak iruditan !!

# Giro ederra Zubietako Euskal Jaian

Urriaren 12an Euskal Jaia ospatu zen Zubietan. Irudia egun horretakoa da. Goizez umeak jolasean eta zaldi gainean ibili ziren eta helduak, berriz, errebote partida ikusi eta jokoaren arauak buruzko xehetasunen berri izateko aukera izan zuten. Ondoren "trikitilari, sagardo, txistor eta Hernaniko txistulari eta kantarien laguntzarekin kantu-giro jatorrean" ibili ziren.

Araetan bapo bazkaldu ondoren, frontoian elkartu ziren, Tapia eta Leturiarekin dantzatzera. Antolatzaileen esanetan, jendetza bildu zen erromeria garaian.

Zubietan Lantzen plataformakoek, azkenik, eskerrak eman nahi dizkiete "lagundu diguzuen guztioi eta datorren urtean gehiago".



ZALDIAN GUSTURA IBILI ZIREN ZUBIETAKO GAZTETXOAK.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
 943 36 03 21 - [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) - [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurerako ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Publizitatea: Bea Alda, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN \_\_\_\_\_ **6. OR.**

IPUIN KONTALARIAK SUTEGIN \_\_\_\_\_ **9. OR.**

AMAYA GOYARAN ZINEGOTZIA \_\_\_\_\_ **12. OR.**

HITZ GEZIDUNAK \_\_\_\_\_ **14. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**ARRAINDEGIA  
 PELLO**  
 Puntapax Kalea, 7  
 Tlf 36 21 64  
 USURBIL

**BORDATXO  
 edaritegia**

**PINTXO BEREZIAK**

Zubiaurrenea, 5  
 Telf: 943 37 10 42

**txirriStra**  
 KONTSEJUZARRA 13  
 943 360 466  
 pintxoak  
 ogitartekoak  
 plater konbinatuak  
**TABERNA**





IMANOL UBEDA

## Artista bere bakardadean

**M**ila urte bizi beharko banu ere, zeregina izango genuke. Bilatzeko gogo hori beti izaten da, ez da sekula bukatzen. Alejandro Tapiaren hitzak dira, aurreko astean orriotan bilduak. Aritz Gorriti lankideak egindako elkarrizketan badira nabarmendu daitezkeen beste hainbat adierazpen ere.

Gizakiaren espresio naturalena izango da margotzearena. Komunikazio tresna baliotsua, gizakia gizaki dene-tik. Ez hori bakarrik. Nahita edo nahi gabe, bizi duen garaia jasotzen ari da. Begi aurrean duen instant hori. Ez du bakarrik paisaia erretratatzen, baita bizi duen denbora ere. Paisaia –espazioa– eta denbora erretratatzen ditu, aldi berean. Gu joango gara. Etorriko dira besteak. Baina deskalabro handirik ezean, margoek hor iraungo dute. Gu izan gineneko garaiaren eta tokiaren lekuko.

Jende askok pentsatzen zuen orduan (duela 50 urtez ari da Tapia), *denbora pasa aritzen ginela. Lanik ez egiteagatik*. Nago, gaur egun ere, hori pentsatzen dutela askok eta askok. Gehienez ere, une jakin batean koadroaren aurrean gauden une horretan, gu distraitzeko daudela

margolariak. Gutxik ikusiko dute belaunaldi baten lekuko dela margolaria. Esan dut, izan gineneko garaiaren eta tokiaren lekuko dira artistak. Margolaria belaunaldi baten historia idazten ari da. Garaikideak garen aldetik, bere zalantzak, bere kezak, bere hausnarketak... gureak ere badira. Garaikideak baikara.

Hau diot, noizbait, belaunaldi berrien artean agertuko delako XX. mendea izan zena ezagutzeko grina izango duenik. Eta horretarako, garaiko arkitekturara, historia-ra, politikara... jo beharko du. Kultur eta arte espresio-etara bezalaxe. Batean zein bestean topatuko dituzte euren galderen erantzunak.

Artista, gizakia den aldetik, bilaketa etengabea ari da lanean. *Bilatzeko gogo hori beti izaten da, ez da sekula bukatzen*. Mundua ulertzeko saiakera amaigabea. Askorentzat, ezereza izango da hori. Huskeria. Hori uste duzuenoi zer esango dizuet ba, ezereza poetizatuko duen artisten premian ere bagaudela. Berezik bizi ditugun garai ilun hauetan. Segurtasunaren izenean, beldurra sistematizatu den garaian.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

### Ika-mika !!

## Zergatik ez garen atez ateko zabor bilketaren aldekoak

**I**datzi hau luzeagoa den beste idatzi baten laburpena da. Idatzi osoa Usurbilgo Eusko Alkartasunaren web orrian ([www.eausurbil.net](http://www.eausurbil.net)) aurki dezakezu.

Eusko Alkartasuna atez ateko zabor bilketaren aurka azaldu den alderdi bakarra izan da.

Sortzen ditugun zaborren gutxitzea, eta horien berrerabilpena eta birziklatzea gure konpromiso pertsonala da, eta praktikara eramaten dugu, eta beraz, defendatzen dugu eta apostu egiten dugu horren alde. Gure ardura politikoaren ikuspegitik txalotzen dugu hondakin organikoen bilketari ekitea; baina ekimen hori ez dugu esperimentuen bidez egin nahi, udal finantziazioz soilik ekitearen alde ez gaude.

Jordi Colomerrek –Usurbilgo udal gobernua aholkatzen ari den teknikaria– argi adierazten du atez ateko sistemak arrakasta izan dezan beharrezkoa dela

herritarren “gainean” egotea, beraiengan “tentsioa” mantentzea. Neurri koertzitiboen aurka gaude, guztiz; are gehiago sortzen ditugun zaborren kontrolaz ari garenean, hain gai sentsiblea eta intimoa denean.

Etxe hondakinak egun eta ordu jakinetan ateratzeak, praktikan, norberaren etxetik jaisten eta igotzen ibiltzea behartzen du, zaborra ateratzearen helburu hutsarekin. Norberak ahal duenean zaborra ateratzeko askatasuna galtzen da.

Gure kaleen eta etxe-atarien garbitasun mailak kezkatzen gaitu. Nabarmena da zikinkeria isurketak gertatuko direla, nahita edo nahigabe. Udal kale garbitzaileek, “sopladorak” eramateaz gain, fregonak eta baldeak eramango dituzte? Usaietaz, ez dugu hitz egingo ere.

Ez dugu sistema babesten garestiagoa izango delako. Sistema martxan jartzeko bakarrik 356.000 euro erabiliko dira; guztiak udal ekarpen propioak.

Propaganda kanpaina bakarrik 60.000 – 80.000 euro inguru gastatuko dituzte. Honi guztiari beste kudeaketa gastuak gehitu beharko zaizkio eta batez ere zabor-biltzaile funtzionario berrien soldatak. Zeren zerbait argi badugu funtzionarioak izango direla da.

Laburtuz, sistemaren aurka gaude, ezerosoa izango delako, zikinagoa, garestiagoa eta batez ere behartua izango delako. Honek guztiak, zaborren kudeaketaren inguruan kontzientzia aldaketa bat erraztu beharrean zaildu egingo duelako, arbuizatzeko jarrerak sortu, eta azken urteetan emaniko urratsetan atzerapausoak gertatuko direlako. Usurbildarro ei ez digu kezkatzen aldaketei aurre egitea, kezkatzen gaituena da aldaketa horiek beharturik egin beharra, behartuaz gu aldatzen ahalegintzea. Ez dugu esperimenterik nahi.

Usurbilgo Eusko Alkartasuna

# Gipuzkoa oinez ezagutzeko liburu ederra

Patxi Azpirotzek egin du eta datorren astean aurkeztuko da Donostian

**I**biltzeko gogoak eta beharrak Patxi Jagoba Azpirotz usurbildarra, lehenik herrian bertan, eta gero Gipuzkoan barrena, leku lauetan paseotxoak ematera bultzatu zuen. Orain, NOAUA!-ren eskutik, Azpirotzek herrialdean zehar egin dituen 161 ibilaldiak, bost liburuez osatutako bilduman jaso eta kaleratuko dira. Laster eskuragarri egongo den gida esku artean izanda eta proposatzen diren zirkuituak erraz paseatzeko modukoak direla aintzakotzat hartuta, hemendik aurrera, oinez ibiltzeko aitzakiarik ez da izango.

Mendi istripu batek mokorra higitzea eragin zion Patxi Jagoba Azpirotz usurbildarrari. Ibiltzeko zaletasuna lehenik bazuen, baina une horretatik aurrera, medikuak sendatzeko geldirik ez egoteko, ibili beharra zuela adierazi zion. Esan eta egin. Lehenik makuluak hartuta, Usurbil alderik alde zeharkatu zuen. Gerora, oinez ibiltzeko eremua zabalduz joan zen eta kosta partera jo zuen. Orio, Zarautz edo Zumaiako pasealekuetan osteratxoak egin zituen.

## GIPUZKOAN ZEHAR

“Ibilaldiak ibiltzeko errazak dira, lauak edo aldapa handirik gabekoak”

Hara eta hona ibilita, azkenean Gipuzkoa osoko herriak eta haien inguruak bisitatu ditu. Guztira 161 paseo egin ditu herrialdeko ingurune lauetan



GUZTIRA 161 PASEO BILDU DITU, HERRIALDEKO INGURUNE LAUETAN

EGITEKO MODUKOAK DEN-DENAK.

zehar. Orain, bere ibilaldien nondik norakoak bost liburuetan bildu ditu, NOAUA!k sustatu eta Udalak eta Foru Aldundiak lagundutako proiektuan.

## Ibilaldi erosoak

Nagikeria alde batera uzteko lagungarria izango da, ibilaldien gida. Proposatzen diren zirkuituak ibiltzeko errazak baitira, lauak edo aldapa handirik gabekoak. Eta gainera, ibilaldi bat edo beste egiteko behar beste informazio aurki dezakegu bost liburuetan.

Ibilbide batzuk geure ingurutik oso gertu kokatzen dira. Baina gehienak ez ditugu etxe ondoan. Hori dela eta, zirkuituetara gerturatzeko eskuragarri dauden eta har daitezkeen garraio zerbitzua- ren berri ematen da; kasuan kasuko, ordutegi ezberdinak. Oinez ibiltzerako-

an, inguruneke paisaiaz, naturaz edota herri gunez ere goza daiteke. Ibilian ibiliaz, toki interesgarriak bisitatu edota ezagutu daitezke. Museo eta erakusketak, ikuskizun desberdinak... Horri guztiari buruzko xehetasunak ere bildu ditu Azpirotzek.

## Gertuko hiru ibilbide

Ur isuriaren arabera antolatuta daude bost liburuetako ibilaldiak. Hala, Oarsoaldeko, baina baita, Oria, Urola edota Deba ibaiek irudikatzen dituzten lur eremuetan hara eta hona ibili da usurbildarra. Bizilekuan bertan hasi zuen Azpirotzek abentura hau eta ingurune honi lotuta, hiru ibilbide, Zubieta aldera bata, Txokoaldera bestea eta Aginagarako hirugarren bat proposatzen ditu.

## 161 ibilbide, bost liburuxkatan

**P**atxi Jagoba Azpirotzek idatzi eta NOAUA! Kultur Elkartek argitaratu duen argitalpena bost liburuxkaz osatzen da. Izan ere, idazleak, bost zonaldetan banatu ditu Gipuzkoan zehar egin daitezkeen ibilaldiak. Guztira, 161 ibilbide, lauak edo nahiko lauak.

Lehen liburuxka: Bidasoa-Oiartzun-

Urumea ingurukoak.

**Bigarren liburuxka:** Oria-Goierrri, Oriabarrena.

**Hirugarren liburuxka:** Oria-Tolosaldea.

**Laugarren liburuxka:** Urolagoiena, Urolabarrena, Kostaldea.

**Bosgarren liburuxka:** Debagoiena, Debabarrena.

## Laster salgai

**B**ost liburukiak eta guztiak Btxukun jasotzeko karpeta bat salgai jarriko dira NOAUA!-n bertan eta baita herriko liburu dendatan ere. Aldizkariko bazkide direnek guztia 12 eurotan eskuratu ahal izango dute, NOAUA!-ko egoitzan. Gainerakoek 20 eurotan.

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

## Udazkena eta ehiztariak



**H**ilabete pasa da udazkenean sartu ginenetik. Egia esan, oraindik eguraldi xamurra badugu ere, hasi zaigu eguna mozten, ordu aldaketa ere gainean dugu eta laster antzemango diogu neguari.

Udazkenero bezala, ehiztariak ere hasi dira tiroka. Tarte hau aprobetxatu izan dut lehen ere ehiztariei gogorarazteko txukunak izan daitezen. Alde batetik edozein lekutan aurkitzen ditugun kartutxoak daude, beste alde batetik berriz, denbora pasatzeko edaten edo jaten dituztenaren aztarnak. Orain herrian denon ahotan dagoen atez-ateko zabor bilketa dela eta, esan nahi nuke, ez dela nahikoa bakoitzak bere etxean sortzen duen zaborra sailkatu eta dagokion ontzira botatzea, kalean edo mendian gabiltzanean ere, bakoitzak egin behar duela berak “sortzen” duen zaborraren arduradun. Ez da batere atsegina zure etxe inguruan besteak botata utzi dituztenak jasotzen aritu behar izatea, inguruak txukun ikusi nahi badituzu behintzat!

Beno, gaurkoz nahiko errieta egin dudalakoa nago eta ea nire hitzak norbaitengana iristen diren.



Gaiez aldatuz esan, auzoko festak nahiko urrun gelditu zaizkigula eta egun horietan izaten den mugimendua alde batetik faltan botatzen dela, baina abenduan ere izango dugu hemen elkarrekin egoteko aukera Sanesteban Txiki ospatuz. Abendua bitartean agian ez dut aukerarik izango tarte honetan idazteko eta badaezpada ere une hau aprobetxatuko dut zuek gure “tonttor” honetara gonbidatzeko.

KALEZAR

MADDI GALBETE

## Udazkeneko koloreak



**P**asa zaigu honezkero, beste hilabete bat. Joan zaigu honezkero, udaran pilatua genuen kolore beltzaxka guztia. Joan zaigu eguzkia, eta berekin batera etorri dira bapatean, euria, eta milaka hostoez bustitako lurrak. Udazkena iritsi zaigu, atea gogor joaz. Baten batek agian oraindik ez dio ireki nahi izan, zaila delako batzuetan onartzea, udara bukatu dela eta hotza datorrela pixkanaka, berriz ere, gure artera.

Udaran margotutako irribarreak hozten hasi dira dagoeneko, euri tantoekin batera lurrean lehortzen.

Hala ere, udazkenaren koloretan parrez jarraitzen dugu negar egiteko motiborik ez dugunok.

Triste hitzarekin alderatu izan da beti udazkena, zahartzaroarekin, amaierarekin.

Baina ez gara konturatzen maiz, udazkenik gabe ez legokeela negurik, negurik gabe ez legokeela udarik, eta udarik gabe udaberriak ez lukeela zentzurik.

Ba al da udazkenekoa baino paisaia politagorik??

ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

## Ehiza garaia iritsi da

**U**dazkenarekin batera, hasia da ehiza gogoko dutenen garairik onena.

Urriaren 12an hasi ziren postuen zozketak eta bat baino gehiago gustura egongo da uso garai honetan hainbat tiro zerura bota ahal izan eta halako batean, usoren bat harrapatzeko.

Atxegaldetarrok ondo dakigu zertaz ari garen, hainbat tiro hots entzun baititzakegu Andatza aldetik. Batzuk bi txakurrekin, beste batzuk bakarrarekin eta gutxi batzuk bakarrik, baina denek dute txoriren bat ehizatzeke esperantza.

Batek baino gehiagok festak eta parrandak alde batera utzi eta etxerakoan ikusten duen goizaldeko eguzkia, jaikitzerakoan ikusten duenarekin aldatzen du.

Neska edo mutilen bat ehizatu beharrean, ea txoriekin zorte hobea duten!





## KALEBERRI

ANA URDANGARIN

## Badatoz erleak



Jada sartuak gara urte bukaera aldeko hilabetetan eta egia esan, amaitu zaizkigu horretaz oroitzeko ditugun inguru honetako azken festak; San Praixkuak aurtent jendetsuak izan direla esango nuke, izan ere, bi astebukaeratan izan naiz eta jende ugari ibili da bertan.

Azaroa ate joka dugu beraz eta azaroaren 9an ospatuko dugun Erle Egunari buruz hitz egin nahi nizueke orain. Egun berezia izango da aurtengoa, izan ere, X. urteurrena ospatuko dugu eta berrikuntza ugari prestatu ditugu.

Kasualitatea egun horretan bertan Behobia ospatuko da, biak egun berean suertatu dira aurtent, baina nik etxerantz pasako dut erratza eta denoi X. Erle Egunera gerturatzeko esango nizueke.

Goizean goizetik hasiko da festa eta eguerdira arte luzatuko dugu eta amaiera urteroko bazkaritxoarekin emanngo diogu. Hainbat "sorpresa" ere egongo direla aurreratzentz dizuet, baina zer diren jakiteko azaroaren 9an frontoira azaldu beharra izango duzue.

Urtero bezala epamahai jatorra antolatuko ezagunen bat edo beste ere egongo da eta nola ez herritarrak dire-



nak ere ezin falta festa honetan. Beraz gonbitea luzatua geratzen da. Nire partetik ondo ondo segi eta ondo izan.

## AGINAGA

AITOR HELETA

## Gordeta ditudanak



Bukatu dira aurtengo San Praixku jaiak. Urtero moduan bi asteburu izan ditugu aurtengoan ere eta denetatik ikusi ahal izan dugu. Estropadak, herri kirolak, umeentzat jokoak eta pailazoak, gaueko kontzertuak, Djak eta nola ez oilasko-biltzaileak. Gustura ibili gara eta gustora baita kanpotik Aginagara ondo pasatzera etorri diren guztiekin. Orain atsedena hartu eta berriz ere datorren urtekoei begira jarri beharko dugu.

Bestalde, Tapiaren omenaldia izan dugu pasa den astebukaeran. Bertan azken 62 urte hauetan egindako lanaren errekonozimendua erakutsi nahi izan diogu. Igandean, berak egindako eskultura baten inaugurazioarekin hasi genituen ekitaldiak. Ondoren, "Gordeta ditudanak" izena duen erakusketa zabaldu zen. Bertan azken 62 urteetan egindako margo eta eskulturak izango dira ikusgai.

Eguerdian berriz, herri bazkaria izan genuen Aginagako frontoian eta bertan giro ederrean gozatzeko aukera izan genuen. Zorionak Tapia!!

## ZUBIETA

PELLO ARANBURU

## Bizikleta lasterketa

Joan den igandean Hernanitik Goizuetarako lasterketa antolatu zuten zubietarrek. Gutxi gora-behera 32 izan ziren txirrindulariak. Benetan zenbaterik parte hartu zuen ez dago jakiterik: ordezkioak, espontaneoak eta figuranteak ugari. Horieta kanpo ikustera joan ginenok...

25 kmak ondo bete zituzten karreristek. Ordu betetik behera entrenatu zutenek, eta ordutik gora bestelakoek. Ez zen bihotzekorik izan, eta istripu bakarra: Eñaut lurre-ra joan zen. Hala ere bigarrena izan zen: zer den sasoia.

Lasterketa ondo, beraz. Arazo bakarra: aginatar batek irabazi zuen, Mikel Aranburuk. Zer egingo diogu, ba, dena ezin ondo atera. Datorren urtean entrenamentu gutxiago eta tatxuela gehiago.

Ez dakit sailkapenak ezertarako balioko duen baina berrogei urtetik gorako gure kuadrilakoen kasuan zenbat eta egoskorrago orduan eta aurrerago klasifikazioan.

Ondoren lagun asko sagardotegira joan ziren, beti bezala, galdutakoak berreskuratzera.



## “Elkartasuna, Etorkizuna” festa Urdiñarben

**E**uskal herrialdeen artean harremanak sendotzea. Hori da “Elkartasuna, Etorkizuna” jaia-ren xede nagusia. Batzuk gogoan izango dute. Jai honen lehen edizioa Usurbilen antolatu zen, 2002ko apirilaren 21ean. Geroztik, herrialdez herrialde errepikatu den festa izan da. Aurten, Zuberoako Urdiñarbek hartu du lekukoa. Hitzordua, larunbat honetan.

2002an Usurbilen hasi eta larunbat honetan Urdiñarben egingo den festarekin, Euskal Herriko zazpi herrialdeak zeharkatuta izango ditu “Elkartasuna, Etorkizuna” jaia.

Zikloa osatzeko, zazpi herrialdetako zazpi elkarte hauek aritu dira urte hauetan guztietan lanean: Bilkokua elkarte-Urdiñarbe (Zuberoa), Basaizeta elkarte-Baigorri (Nafarroa Behea), Kaxkarrotak elkarte Hazparne/Baiona (Lapurdi), Sustraiak elkarte-Basauri (Bizkaia), Nafartarrak Kultur Elkartea-Usurbil (Gipuzkoa), Añana-Euskara Mingaingan Elkarte (Araba), Orreaga elkarte eta Tuterako Beterri elkarte (Nafarroa Garaia).



LEHEN EDIZIOA USURBIL EN OSPATU ZEN. HERRI BAZKARIA EGIN ZEN FRONTOIAN. AURTEN, ZUBEROAKO URDIÑARBE HERRIAK ANTOLATUKO DU FESTA.

### Txerriki Antzerki Taldearen saioa

Herrialde ezberdinetako kultur ekitaldiekin osatu dute larunbateko egitaraua. Kultur eskaintza zabala izango da: gaite-roak, zanpantzarrak, txistulariak, fanfarreak, jotak, akordeioak, dantzariak...

Bertan izango dira, Usurbilgo ordezkari gisa, Txerriki Antzerki Taldekoak.

Urdiñarbera joateko autobusa antolatu du Nafartarrak Kultur Elkartek. Baten batek joan nahiko balu, NOAUA!ra deitu dezala, beranduenik ostiral arratsaldean (hilak 24).

## Zazpi herrialdeak bat

**2**002. urtetik hona, Usurbil, Añana, Tuterako, Basauri, Baigorri eta Hazparnetik igaro eta gero, Urdiñarben ospatuko da larunbat honetan “Elkartasuna, Etorkizuna” festa. Lehen geldialdia, hala ere, Maulen izango da. Bertan egingo da hamaiketakoa, baina ondoren, jai nagusia Urdiñarben ospatuko da.

### ELKARTASUNA, ETORKIZUNA EGITARAUA

11:00 Maulen ongi etorria.

12:00 Harrera Mauleko udaletxean.

Gero, Urdiñarben festa. Ikusgarriak: txistuak, gaite-roak, zanpantzarrak, txistulariak, fanfarreak, jotak, akordeioak, dantzariak, antzerkia...



ZAZPI HERRIALDEAK ZEHARKATU DITU  
ELKARTASUNA, ETORKIZUNA FESTAK.



### Alejandro Tapiaren erakusketa Aginagan

Izenburua: “Gordeta ditudanak”.

Zabalik: azaroaren 9ra arte.

Non: Aginagako Eliza Zaharrean.

Ordutegia: asteazkenetik ostiralera,  
18:00-20:00.

Larunbatak, 12:00-14:00, 18:00-  
20:00. Igandeak, 12:00-14:00.



## Ipuin kontalariak udal liburutegian

**L**iburutegien Nazioarteko Eguna ospatuko da ostiral honetan. Aurreko astean iragarri genuen bezala, Sutegiko udal liburutegiak bi ekitaldi antolatu ditu. Ostegun honetan, Pello Añorga ipuin kontalaria hurbilduko da eta, ostira-lean, Amaia Zinkunegi ipuin kontalariaren txanda izango da.

URRIAK 23 OSTEGUNA

18:00etatik aurrera, Pello Añorga ipuin kontalaria udal liburutegian. 4 urteko haurrei zuzendutako saioa izango da.

URRIAK 24 OSTIRALA

18:00etatik aurrera, Amaia Zinkunegi ipuin kontalaria udal liburutegian, 5 urteko haurrentzat.



PELLO AÑORGA IPUIN KONTALARIA  
4 URTEKO HAURREI ZUZENDUKO ZAIE.

## Ziklomotorrek ere ITVa pasa behar

**L**ege berriaren arabera, hiru Lurte baino gehiago dituzten ziklomotorrek derrigorrez egin behar dute ITV-IAT azterketa. Bi egunetan izango da azterketa tekniko hori egiteko aukera Usurbilen: urriaren 28an eta 30ean. Baina aurretik, txanda eskatu behar da Udaltzaingora deituz, 943 361 112.

Udaberrian hainbat egunez izan ziren ITV-IATeko teknikariak Askatasuna plazan. Udazkenarekin berriz itzuliko dira gure artera. Bi egun hauetan: urriaren 28an eta urriaren 30ean. Zeintzuk dira azterketa pasa behar dituzten ziklomotorrak? 50 z.k. baino gutxiago dituen eta 45 k./o. abiadura gaitzen ez duten bi gurpileko ibilgailuek derrigorrez pasa behar dute azterketa.

Inora joan gabe, herrian bertan egin ahal izango da azterketa tekniko hori. IAT-ITV delako estazio mugikor bat hurbilduko baita Askatasuna plazara, asteazkeneko azoka egiten den aterpera.



AZTERKETA EGITEKO 22 EURO  
ORDAINDU BEHAR DIRA.

**Bi egunez: urriaren 28an  
eta urriaren 30ean**

Azterketa egiteko, ordutegi hau jarri da: goizeko 9:00etatik 14:45ak arte. Baina azterketa pasa baino lehen, zita eskatu behar da. Udaltzaingora deitu, 943 361 112, goizeko 9:00etatik 20:00etara, eta telefonoz emango zaizu motorraren azterketa egiteko txanda.

Kontuan izan, 22 euro ordaindu behar direla azterketa tekniko pasatzen ahal izateko.

## Ipuinei buruzko hitzaldia ikastolan

**U**darregi ikastolako Hitz-Aho guraso elkarteak hitzaldi berri bat antolatu du. Bertan, gai hau landuko da: "Ipuinak eta emozio hezkuntza". Horretarako, Juan Carlos Alonso psikologoak gai hau jorratzeko hainbat argibide eman- go ditu.

Hitzaldia urriaren 23an izango da, osteguna, Udarregi ikastolako erdiko aretoan. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da eta 18:30ean amaitu.

**Haurtzaindegiz zerbitzua**

Hitzaldiak irauten duen denboran, haurtzaindegiz zerbitzua egongo da. Seme-alaben hezkuntzarako baliagarria izango delakoan, Hitz-Aho guraso elkarteak partehartzerara gonbidatu nahi ditu gurasoak.

## Ikastaro ugari Aginagan

**I**kasturte berria hastearekin batera, Aginagako Antxomolantxa elkarteak ludoteka zerbitzua eta ikastaro hauek antolatu ditu: Informatika, Internet, Antzerki Tailerra, Ingelesa. Edonork parte har dezake baina lehentasuna Aginagakoek izango dute.

Izena emateko, aukeratu den ikastaro horri dagokion kuota ordaindu behar da, ikastaro hasieran bere osotasunean edota bi zatitan, orain eta urtarrean.

Kuoten ordainketa honako kontu korrante zenbaki honetan egin behar da: 3035 0140 33 1400023932. Aipatu tramitea egiterakoan, norbere izena eta aukeratutako ikastaroa zehaztu.

Argibide gehiago: 646 039 656  
antxomolantxa@euskalerrria.org

# Indartsu ekin zaio atez ateko parte hartze prozesuari

**S**utegi txiki geratu zen astelehenan. Hondakinen atez ateko bilketa sistema jendaurrean aurkezteko burutu zen lehen saioan auditorioa herritarrez bete zen. Auzoka eta sektoreka egin nahi diren bi bilera errondetan lehena zen; informazioa partekatu eta zalantzak argitzeko. Sarrera moduko bat izan zen urriaren 20ko saioa, herritarrei zuzendutako parte hartze prozesuak datozen asteotan jarraituko baitu.

Eserlekuak beteta eta auditorio sarrean herritarrak zutik, jakin minez eta norberak dituen zalantzak argitzeko gogoz. Hondakinen atez ateko bilketa sistema aurkezteko Udaletik abian jarri duten parte hartze prozesuari lotutako bilera errondako lehen saiora joateko gonbitak, herritarren aldetik erantzun zabala jaso zuen. Informazioa helarazi eta herritarren galderei erantzuteko tarte izan zen.

## BIRZIKLATZE KOPURUA

“Bataz besteko birziklatze maila %20tik %80ra igo nahi da, hori da atez ateko sistemaren lehen erronka”

Hizlari lanetan aritu ziren alkate Xabier Mikel Errekondo, San Markos Mankomunitateko lehendakari orde eta udal zinegotzi Imanol Azpiroz, Nekazaritza eta Ingurumen teknikari Izaskun Txintxurreta, San Markos Mankomunitateko aholkulari Jordi Colomer eta parte hartze prozesuetan aditu den Nicola Foroni.

Hondakinen gaia herritar ororen arazoa izanik, denon artean adostuta, guztion beharrei erantzungo dien eta denontzat egokia izango den konponbidea aurkitu behar dela azpimarratu zen, egitasmoaren aurkezpen orokorreko saioan. Ingurumen eta osasunaren aldeko jarreratan sakondu beharra dagoela



SUTEGIRA HURBILDU ZIREN HERRITARRAK ADI-ADI JARRAITU ZITUZTEN  
UDAL ORDEZKARI ETA ADITUEN ADIERAZPENAK.

ere gaineratu zuten. Testuinguru horretan kokatu zuten hizlariak, urriaren 20az geroztik abian den parte hartze prozesua. Herritarren ikuspegia jaso nahi da asteotan, alkateak Sutegira bertaratu zirenei gogorarazi bezala, “zuek, atez ateko bilketa sistemari forma emateko”.

## %80, hasierako helmuga

Lehendik udal gobernu taldetik aipatu izan den bezala, helburu gorena zaborra zero izatea da. Baina hasiera batean, atez ateko bilketa sistema martxan jarrita egungo batz besteko birziklatze maila %20a izanik, %80ra igo nahi da. Eta lehen erronka beteta, erreusa edo birziklatu ezin den atala are gehiago nola murriztu aztertzea. Horretarako beharrezkoa izango da, herritarren eta erakundeen arteko elkarlana. Herritarrek hondakin atal bakoitzaren ondo sailkatu eta behar den une eta moduan etxe atarian uztea ezinbestekoa izango da. Eta erakundeek lan hori errazten lagundu beharko dutela azpimarratu zuten aurkezpen saioan.

Euskal Herrian halako esperientzia bat abian jarriko duen lehen udalerria izango da Usurbil. Horregatik, Imanol Azpirozen esanetan, “Gipuzkoako

eredu izan behar dugu. Lortuko dugu”. Esperientzia berritzaile hau Usurbila mugatu ordez, “herrialde osoan barrena zabalduta dadila”, adierazi zuen. Hainbat udalerrri, Usurbilen abian jarri nahi den egitasmoari begira daudela jakinarazi zuten.

## San Markos itxita, arazoak hor dirau

Gutako bakoitzak 1,05 kilo sortzen ditu etxean, urteko 382 kilo. Usurbildarrok sortutako hondakinekin, urtebetean Dena Plaza 9,5 metroko altuerara arte bete genezake. Eta bost urtetan kanpandorrera ailegatuko ginateke. Modu horretan marraztu zuten urriaren 20ko aurkezpen saioan, egun hondakinekin dugun panorama.

Orain gutxi itxi da bestalde, San Markosko zabortegea. Erabakia aurrerapausotzat jo dutenak oker dabiltzala adierazi zuen Mankomunitateko lehendakari ordeak, “politika berdinarekin jarraitzen baita”. Une honetan, geure ingurunean sortutako hondakinak Gipuzkoako beste hiru zabortegetara eramaten ari dira.



# Atez ateko sistemaren oinarriak

**A**tez ateko sistemaren ardatzak aurkeztu zituzten pasa den astelehenean Sutegin. Zonaldeka edo sektoreka, sistema berria era honetan egokitu nahi da.

## ETXEAN, ATEZ ATE

Ezinbestekoa da etxean sortzen ditugun hondakinak ondo sailkatzea, gero ondo tratatu ahal izateko. Beraz, hondakin atal bakoitza nahastu gabe, bereizita sailkatu beharko da; papera eta kartoa batetik, organikoa bestetik, erreusa... Egunero, hondakin atal bakoitza etxe atarian utzi beharko dugu, aldezturik zehaztutako ordutegian. Hala ere, etxez etxe informazioa banatzeko asmoa dago, guztia nola egin behar den azaltzeko.

## AUTOKONPOSTAJEA

Herri mailan konpostatzeko gune bat zabalduko da. Baina sortzen dugun hondakin gehiena organikoa izanik, eta tratamendu gune nagusi hori kolapsatzea saihesteko, autokonpostajea bultzatuko da, halakorik egiteko aukera dutenen artean.

## KONPOSTAJE KOMUNITARIOA ZUBIETAN

Garbitxiki bat zabalduko da Zubietan. Inguruan bizi direnek, bertara eraman ahal izango dituzte atal organikoa eta birziklagarriak diren gaineko hondakinak ere.

## INDUSTRIA GUNETAKO TASAK

Herri gunetik aldentuta egon eta



ASTELEHENEAN, JENDEZ GAINEZKA IZAN ZEN SUTEGIKO AUDITORIOA.

bolumen aldetik hondakin gehiago sortzen dutenez, jasotako zerbitzuaren arabera finkatu nahi da tarifa industria gunetan. Dendetarako ere egitasmoa egokitu nahi da.

## Bi bilera erronda egingo dira

**A**uzoka eta sektoreka egindako bilera sortari ekin zaio. Hitz gutxitan, asteotan marraztuko da gerora martxan jarri nahi den sistema berria. Hauek dira datozen egunetako hitzorduak:

### URRIAK 22 / AZAROAK 5

Gaia: Landa eremuko atez ateko bilketa.

Ordua: 18:30. Tokia: Sutegi.

### URRIAK 23 / AZAROAK 6

Gaia: Komertzio eta poligonoetako atez ateko bilketa.

Ordua: 20:00. Tokia: Sutegi.

### URRIAK 24 / AZAROAK 7

Gaia: Santueneako atez ateko bilketa (Santuenea, Urdaiaga, Txokoalde).

Ordua: 18:30.

Tokia: Santueneako auzo elkartearen egoitza.

### URRIAK 25 / AZAROAK 8

Gaia: Zubietako atez ateko bilketa.

Ordua: 17:00.

Tokia: Zubietako frontoi atzeko lokala.

### URRIAK 27 / AZAROAK 10

Gaia: Aginagako atez ateko bilketa.

Ordua: 18:30.

Tokia: Aginagako ludoteka.

### AZAROAK 3 ASTELEHENA

Gaia: Atez ateko bilketa. Aurkezpen orokorra.

Ordua: 18:30.

Tokia: Sutegi.

### AZAROAK 4 ASTEARTEA

Gaia: Kaxkoko atez ateko bilketa (Elizalde, Kalezar, Atxegalde).

Ordua: 18:30.

Tokia: Sutegi.

Informazio gehiago:

[www.usurbil.net/atezate](http://www.usurbil.net/atezate)



Amaya Goyaran, PSE-EEko zinegotzia

# “Atez ateko bilketaren arrakasta herritarren esku dago erabat”

NOAUA! PSE-EE alderdiak beste herri batzuetan eta beste instituzio batzuetan izan duen jarrera ikusirik, deigarria egiten da Usurbilen zure alderdiak hartu duen erabakia. Zeintzuk dira atez ateko sistema babesteko kontuan hartu dituzun argudio nagusiak?

Amaya Goyaran. Etxeko hondakinak eta hondakin industrialak ahalik eta gehien birziklatzearen alde dago PSE-EE alderdia. Horretan, uste dut alderdi denak gaudela ados. Ezberdintasunak sortzen dira, ordea, birzikla ezin daitezkeen hondakin horiekin zer egin erabakitzeko garaian.

1999tik hona Usurbilgo zinegotzia naiz. Hainbat bizilagunek nire aldeko bozka eman dutelako nago hemen. Nire alderdiko eta beste alderdietako boto-emaeleekin bilera ugari egin eta gero, herriaren gehiengoa atez ateko sistemaren aldekoa dela ikusi dut. Horregatik, nik ere babestea erabaki dut.

## BILKETA ATEZ ATE

“Emitza onak lortzen badira, errauste-plantaren birplanteamendua exijitzeko argudio indartsuak izango ditugu”

Gainera lehen eskuko informazioa daukat, Herri Katalanetako alderdiki-deena. Han badira horrelako esperientziak martxan, eta aipatzekoa da Puigpunyent herrian egiten ari direna. Hango alderdikideek esan didatenez, Usurbilgo herriaren parekoa da biztanle aldetik Puigpunyent, eta atez ateko sistemak emitza oso onak eman dituela.



1999AN AUKERATU ZUTEN GOYARAN ZINEGOTZI LEHEN ALDIZ. GEROZTIK, UDALETXEAN ARITU DA 9 URTEZ JARRAIAN. ARTXIBOKO IRUDIA.

Beraz, hemen ere gauzak ondo egi-ten badira, zaborren %80a baino gehiago birziklatu ahal izango da. Horregatik eman diot proiektu honi nire babesa.

N. Atez ateko bilketa prozesuaren berri emateko, Udalak hainbat aurkezpen publiko egingo ditu. Besteak beste, bilketa moduak eta ordutegiak zehaztu nahi dira herritarrekin batera. Zentzu honetan, bizilagunen inplikazioa ezinbestekoa izango da, ezta?

A. G. Herritarrek inplikatzeko ez badira, atez ateko proiektuak kale egingo du. Bilketa sistema honen arrakasta herritarren esku dago erabat. Udalak eta San Markosek bitarteko asko jarrita ere, herritarrek inplikatzeko ez badira, atez atekoak ez du funtzionatu sekula.

N. Urtarrilean jarri nahi da bilketa sistema berria martxan. Ordurako egokituko al gara ohitura berrietara?

A. G. Borondate kontua da. Denok gure lana egiten badugu, iritsiko gara. Epea juxtu samarra da agian, baina usurbildarrek argi utzi nahi dute atez ateko sistemaren bidez posible izango dela birziklatze tasa altuenak lortzea.

N. Atez ateko bilketarekin kritiko direnek sistema ez dela eragingarria izango diote. Alde daudenek, ordea, errauste-planta geldiarazteko balio dezakeela uste dute. Zuk nola ikusten duzu eztabaida hau?

A. G. Ezin dira errauste-planta eta atez ateko bilketa sistema nahastu. Atez ateko esperimentuaren helburua da birziklatze-tasa handiena lortzea.

Gainera, errauste-plantaren ezarpena ez da udal honen kompetentzia. Baina oso argi daukat: atez ateko sistemaren bidez, emitza onak lortzen badira, beste herri batzuek gure sistema bera jarriko dute martxan. Eta emitzak eskutan, errauste-plantaren birplanteamendua exijitzeko argudio indartsuak izango ditugu.

# “Igoera eman bada ere, zaborraren tasak inguruko herrietakoa baino merkeagoa izaten jarraituko du”

NOAUA! 2009an, zabor-tasaren igoera %50ekoa izango da. Udalbatza plenoan esan zen igoerak ez duela atez ateko sistemarekin zerikusirik. Eta igoera aplikatuta ere, beste herri batzuetan baino gutxiago ordaintzen jarraituko dutela usurbildarrek.

Amaya Goyaran, PSE-EE. Udalbatza plenoan bertan aipatu nituen igoera hori babesteko nire arrazoiak. Uraren igoerari buruz ere nire azalpenak eman nituen.

Usurbilen zinegotzi lanetan hasi nintzenetik, zabor-bilketa beti izan da defizitariora. Baina azken urteotan, gastuak nabarmen igo dira, sarrerak baino gehiago. San Markos mankomunitateari egindako ekarpenak igo egin dira, jasotako zabor tona bakoitzaren tratamendua asko igo da...

Honen ondorioz, gastuak eta sarrerak nola berdindu planteatu behar izan dugu.

## DENON ARTEAN

“Gaia despolitizatu behar da, ingurune garbiagoa sortu behar dugu denon artean”

Dena den, hausnarketa sinple honen bitartez, igoera erraza da ulertzen: tasaren igoera %50ekoa izan bada ere, zerbitzu hau inguruko herrietakoa baino merkeagoa izango da aurrerantzean ere.

N. Besterik esan nahi duzu?

A. G. Bukatzeko, herritar denei egiten diet proiektu honetan %100ean inplikatu daitezen. Gaia despolitizatu



HERRITARREN INPLIKAZIOA  
FUNTSEZKOA IZANGO DELA DIO  
AMAYA GOYARAN EK.

behar da, ingurune garbiagoa sortu behar dugu denon artean.

## Larunbatean Legutianora joateko autobusa antolatu du Usurbilgo Eusko Alkartasunak

**E**usko Jaurlaritza osatzen duten alderdiek (EAJ, EA eta EEB) eta Aralarrek deituta, Auzitegi Konstituzionalak debekatutako kontsultaren aldeko ekitaldi bateratua egingo da larunbat honetan. Usurbilgo EAK autobusa antolatu du bertara joateko. Izena emateko aukera dago oraindik.

"Hitza hitz" lelopean, Gernika eta Gasteiz arteko hainbat lekutan kontzentrazioak egiteko deia egin diete herritarrei, gero Arabako hiriburuan kontsultaren aldeko ospakizunean bilitzeko.

Gasteizko saioan lau alderdietako eledunek hartuko dute parte eta adostutako adierazpen bat irakurriko dute.

Gernikan, Zornotzan, Durangon, Urkiolako gainean (Abadiño), Legutianon eta Gasteizen bildu nahi dituzte herritarrak, kontsultarekin lotutako hitzak osa ditzaten.

Gernikan, parte-hartzaileek Euskal hitza osatuko dute, Zornotzan Herria, Durangon Bakea, Urkiolan Bai erantzungo zaio bakearen galderari eta Legutianon Erabakia hitza osatuko dute.

Gasteizen Bai hitza eratuko dute berriro eta bertan bilduko dira lau alderdietako ordezkariak, 13:00ak inguruan, adierazpena irakurtzeko.

### Autobusa doan izango da

"Debekatua izan den autodeterminazioaren aldeko kontsultaren aldeko ekimenak burutuko dira -larunbatean-



LARUNBATEKO EKITALDIA HIRUKOAK  
ETA ARALARREK ANTOLATU DUTE.

